Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala
T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

Esp. zk.: SUBV_EVAL_INDIV/2026/12

:

DEIALDIA LAGUNTZA HUMANITARIOKO ETA LARRIALDIETAKO PROIEKTUAK GAUZATZEKO, 2026

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela bete dadin Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. (2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua).

Iruñeko Udalak, 2026ko aurrekontuan, 1.665.770 euroko zenbatekoa aurreikusi du hasiera batean Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programa gauzatzeko, honako helburu hauekin: herrialde behartsuetako komunitateetan giza garapena laguntzea, giza jarduketak eta larrialdi-jarduketak martxan jartzea eta herritartasun globalaren eta nazioarteko elkartasunaren aldeko hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak sustatzea.

II. Plan Zuzentzaile honetan (2022-2025) eta etorkizuneko III. Plan Zuzentzailean (2026-2029) Udal Programaren helburua da Iruñeko herritarren elkartasuna bultzatzea, laguntzea eta garatzea, udalerrian aktibo dauden GGKEek ordezkatzen dutena bereziki.

Toki-erakunde batek ahal duen neurrian, bizitzak babestu eta salbatu nahi dira, oinarrizko eta berehalako premiei erantzunez, bai eta askotariko krisiak direla-eta (jatorri fisiko-naturalekoak, klimatikoak, giza jardunak eragindakoak edo indarkeria-egoera orokorrekin edo gatazka armatuekin loturikoak) kalteturik dauden pertsonen eskubideak eta duintasuna babestu ere. Larrialdiei erantzutea eta krisi konplexu, kroniko eta errepikakorrei arreta ematea ere kontuan hartzen da. Ildo horretan, krisi humanitarioen genero-dimentsioa eta emakumeek, nerabeek eta neskatoek dituzten laguntza- eta babes-behar bereziak zeharkakotasunez jorratzen dira, bai eta beste kolektibo zaurgarri batzuek planteatzen dituztenak ere, batez ere haurtzaroan eta nerabezaroan eta desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan.

Gainera, elkartasuna eta lankidetza gure Iruñeko gizartearen erantzukizuna direla eta ez laguntza asistentzial hutsa uler dadin lagundu nahi da, aintzat hartuta mundua gero eta globalizatuago dagoela eta elkarren mendekotasuna gero eta handiagoa dela. Era berean, herritarrei hobeki informatzen eta egungo munduari eragiten dioten krisiez jabetzen lagunduko dieten prozesuak babestu nahi dira.

Iruñeko Udalaren 2026rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da hondamendi naturalek edo giza jatorriko gatazkek eragindako larrialdi humanitarioko egoeretatik edo berehalako arrisku batetik datozen ondorioak arintzeko jarduketak sustatzea. Plan horren 2. ildo-estrategikoan (Lankidetza) jasotzen da berariazko dirulaguntza-ildo bat: dirulaguntzen deialdi publiko bat, banakako ebaluazio-araubidean, laguntza humanitarioko eta larrialdietako (LHL) proiektuak gauzatzeko. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarrizko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiekzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Zinegotzi Ordezkaria.
3. Alor kudeatzailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiekzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkari teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea

Ekintza humanitarioak barne hartzen ditu laguntza eta babesa emateko ekintzak hondamendien biktimei, izan hondamendi horien jatorria fisiko-naturala edo klimatikoa zein gizakion ekintza, eta indarkeria orokortuaren eta gatazka armatuen ondorioak jasaten dituztenei, herritarren desplazamendu behartuak barne. 5 ekintza-ildo ditu:

a) Prebentzioa: aurreikustea, aurrea hartzea eta prestatzea balizko hondamendien testuinguruan, horien aurrean erantzuteko gaitasuna handitzea, eta gatazka batekin loturiko larrialdia edo hura larriagotzea saihestea, baita horrek herritar zibilen artean dakartzan ondorioak saihestea ere, halakorik gertatu bada.

b) Larrialdia: hondamendien biktimei laguntza eta babesa ematea, hondamendi horiek naturalak edo gizakiak eragindakoak izan, hala nola gatazka armatuak eta horien ondorio zuzenak. Ekintza horiek sufrimendua arintzera, biziraupena bermatzera eta eskubideak babestera bideratuko dira.

c) Krisi kronikoa: larrialdi konplexu, iraunkor eta errepikakorrek kaltetutako herrialdeei beharrezko laguntza eta sorospena ematea, batez ere agintariek ezin dituztenean beren herritarrak lagundu edo inolako agintaririk ez dagoenean.

d) Errehabilitazio edo leheneratze goiztiarra: hondamendi naturalen edo gizakiak eragindako hondamendien (gatazkak kasu) ondorengo egoeretan dauden herritarrei zuzendua.

e) Biktimen babesa: gatazken edo antzeko salbuespenezko egoeren biktimen aldeko babes-ekintzak sustatzea.

Ildo horien artean sartzen dira, besteak beste, ondasunak eta materialak premiaz bidaltzea, oinarrizko zerbitzuei eustea eta kaltetutako pertsonei laguntza eta babesa emateko langileak igortzea. Era berean, hondamendiak prebenitzeko eta prestatzeko ekintzak jasotzen dira, kaltetutako pertsonen biziraupena bermatzeko eta haien sufrimendua arintzeko.

Deialdira edozein kokapen geografikotan larrialdiko jarduketa humanitario txikiak egiten dituzten GGKEak aurkezten ahalko dira, bereziki garapenerako proiektuen bidez presentzia duten eremuetan. Aurkezten diren jarduerek 2026an hasi eta bere horretan garatzeko modukoak izan beharko dute, proiektu zabalago baten parte diren edo ez kontuan hartu gabe.

Zuzenean jarduteko programak sartzen dira, bereziki honako jarduketa hauek:

a) Materialak edo ekipamenduak erosi edo igortzea:

Osasun-materialak edo -ekipamenduak: hornidurak edo pertsonendako arreta barne, oinarrizko beharrak asetzeko (elikadura, higienea, osasuna, etab.).

Hezkuntzakoak: eskola-tresnak, oinarrizko ekipamenduak, etab.

Nekazaritza-garapenarekin loturikoak: tresnak, nekazaritza eta abeltzaintzako intsumoak, haziak, etab.

b) Oinarrizko azpiegiturak premiaz berreraiki edo zaharberritzea.

c) Indarkeriaren aurrean prebentzio-programak edo -zerbitzuak edo biktimak babestekoak.

2. Deialdiaren helburua:

1999. urteaz geroztik eta Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programaren bitartez, Iruñeko Udalak laguntza eman du Iruñeko udalerrian jarduten duten hainbat entitatek edo garapen-proiektuetan Iruñeko Udalarekin lankidetzan aritu diren Hegoaldeko udalek giza larrialdietan egiten dituzten jarduketetarako, bat eginez Garapen Jasangarrirako eta Elkartasun Globalerako Lankidetzari buruzko otsailaren 20ko 1/2023 Legearekin eta Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearekin, zeinek larrialdi humanitarioetarako jarduketak Garapenaren aldeko Lankidetzan aritzeko eremuetakotzat jotzen baitituzte.

Aintzat harturik ere larrialdietan edo premia humanitarioen aurrean toki-erakunde batek erantzuteko gaitasun mugatua duela, Iruñeko Udalak garrantzitsu deritzo alor honetan sortzen diren ekimenetan laguntzeari. Batez ere, planteatzen diren ekintzak GNLUPek babestutako beste ekimen batzuen osagarri izatea lortu nahi da.

3. Diruz lagungarriak izaten ahal diren jarduerak egiteko baldintzak eta epea:

a) Deialdi honetan adierazitako printzipio eta baldintzen arabera egokiak izatea. Alde horretatik, larrialdi humanitarioa, gehienez ere, eskabidea aurkeztu baino hiru hilabete lehenago gertatu behar da.

b) Dirulaguntzaren xede diren jarduerek txikiak izan behar dute.

c) Frogatu behar da entitate eskatzaileak gauzatzeko duen gaitasuna, bai eta ekintza humanitarioari eta larrialdiei buruzko ezagutza zabala ere.

d) Tokiko kide bat izatea proiektua eginen den eskualdean. Kide hori Administrazio Publiko bat izaten ahal da, edo GGKE bat (barne harturik eskaera egiten duen GGKEak herrialde hartzailean duen ordezkaritza), eta bere helburuei eta lan-esperientziari buruzko informazio nahikoa eman beharko du.

e) Azaltzea zer nolako harremanak ezarriko diren tokiko kidearekin edo komunitate hartzailearekin diruz lagundutako ekintzaren jarraipena egiteko.

f) Behar bezain zabal garatuta aurkeztea emaitzen, jardueren eta proiektua gauzatzeko behar diren baliabideen berri ematen duen informazioa.

g) Botikak emateko edo horiek eskura jartzeko jarduerak barne hartzen dituzten proiektuak Osasunaren Mundu Erakundeak eta Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak

ezarritako indarreko jarraibideei lotu beharko zaizkie.

h) Entitate bakoitzak eskaera bakarra aurkezten ahalko du deialdi honetan, eta, horretarako, ulertuko da entitate desberdinak direla elkarte bat eta hura osatzen duten entitateak.

Diruz lagungarriak diren jarduerak egiteko epea:

Aurkeztutako proiektua gauzatzeko aurreikusitako hasierako epea ez da sei hilabetetik gorakoa izan behar.

Diruz lagundu beharreko proiektuak zer testuinguru sozial eta geografikotan garatuko diren kontuan hartuta, esku-hartzea gauzatzeko epea luzatzeko arrazoitutako kausak egonez gero, luzapena ematen ahalko da. Epea luzatu ahal izateko, horretarako arrazoiak jakinarazi beharko zaizkio GNLUPi idatziz eta proiektua amaitu baino lehen, eta horrek balorazio positiboa egin beharko du. Eskatu den epe-luzapena eragin duten inguruabarretara doituko da.

Hasteko azken eguna (aurretik)

Proiektu edo ekintza baten jarduerak eskaera egiten den eguna baino hiru hilabete lehenago hasten ahal dira.

Hasteko azken eguna (ondoren)

Proiektu edo ekintza baten jarduerak funtsak jaso eta gehienez ere bi hilabetera abiarazi beharko dira. Jarduerak ezin badira funtsak jaso eta bi hilabeteko epean hasi, GNLUPi luzapena eskatzen ahalko zaio esku-hartzea hasteko.

Hasiera-data eta amaiera-data jakinaraztea

Entitate eskatzaileak Iruñeko Udalari jakinarazi beharko dio proiektua hasteko benetako data, funtsak jasotzen dituenetik hilabeteko epean, eta dirulaguntza ordaindu izanaren egiaztagiria erantsi beharko du.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

☒ BAI ☐ EZ

Deialdi honetako eskaerak baloratzeko honako irizpide hauek erabiliko dira: 100 puntu gehienez ere.

1. Egokitzapen-maila deialdiaren lehentasunekiko (4 puntu bitarte): Baloratuko da proposamena deialdian lehenetsitako hainbat sektoretan kokatuta egotea: a) Materialak edo ekipamenduak erostea edo bidaltzea; b) Oinarrizko azpiegiturak premiaz berreraiki edo zaharberritzea; edo c) Indarkeriaren aurrean prebentzio-programak edo -zerbitzuak edo biktimak babestekoak.

2. blokea. Entitatearen eta jarduketari ekin behar diotenen gaitasuna zein horien harremanen kalitatea (16 puntu bitarte).

2.1. GGKE eskatzailearen eskarmentua eskualdean edo sektorean (9 puntu bitarte): Baloratuko da entitateak honelako proiektuak kudeatu izana: Udalak finantzatutako proiektuak edo Iruñeko Udalaren antzeko garrantzia duten beste erakunde publiko edo pribatu batzuek finantzatutako LHLeko proiektuak. Era berean, baloratuko da GGKE eskatzaileak aldez aurreko esperientzia

dokumentatzea herrialde hartzailean eta jarduera-sektorean egindako LHLeko proiektuen kudeaketan, bai eta abiarazitako proiektuak izatea ere (gaur egun edo berriki), bereziki Iruñeko Udaletik edo Nafarroako beste erakunde publiko batetik dirua jaso badute.

2.2. Tokiko kidearen eskarmentua eta gaitasuna eskualdean (3 puntu bitarte): Baloratuko da tokiko kideak 2 urtetik gorako lan-esperientzia izatea komunitatearekin edo eremu berean, bai eta esperientzia hori ondo azalduta edo dokumentatuta egotea eta Iruñeko Udalak finantzatutako proiektuekin lan-esperientzia izatea ere.

2.3. Herritarren ordezkari den tokiko erakunde batek proiektua gauzatzen parte hartzea (2 puntu bitarte): Baloratuko da proposamena komunitate onuraduna edo toki-erakunde publiko bat ordezkatzen duen eragile batek abalatzea.

2.4. Gizarte erakundeen parte-hartze bateratua sustatzea tokiko eragileetan, beste talde edo erakundeekin batera: larrialdi-batzordeak, kluster tematikoak, etab. (2 puntu bitarte): Gune horietako parte izatea eta horietan modu egonkorrean parte hartzea baloratuko da.

3. blokea. Proiektuaren protagonistak eta onuradunak (5 puntu bitarte)

3.1. Onuradunei buruz emandako informazioa (3 puntu bitarte): Baloratuko da onuradunak modu egokian eta eguneratuan ezaugarritzea, sexuaren edo adin-taldearen edo beste irizpide garrantzitsu batzuen arabera bereizita, eta proiektuaren onurak zertan jasoko dituzten azaltzea.

3.2. Desgaitasunen bat duten onuradunak (1 puntu, gehienez): Baloratuko da desgaitasunen bat duten pertsonak artatzea.

3.3. Onuradunen parte-hartzea proiektuan (1 puntu, gehienez): Baloratuko da onuradunek proiektuaren edozein fasetan parte hartzeari erreferentzia egitea.

4. blokea. Teknikaren eta aurrekontuaren kalitatea (57 puntu bitarte):

4.1. Proiektuaren aurkezpena: eranskinak eta abal-gutun egokiak (2 puntu bitarte): Baloratuko da aurkeztutako abal-gutunak egokiak eta koherenteak izatea erakunde gutun-emaileek proposameneko jardueretan duten parte-hartzearekin, bai eta aurkeztutako eranskin teknikoak egokiak izatea ere.

4.2. Proiektua identifikatzeko garatutako prozesua (2 puntu bitarte): Proiektua identifikatzeko lana nola egin den behar bezala azaltzea baloratuko da.

4.3. Testuingurua (12 puntu bitarte): Esku-hartzea epe laburrean (urtebete baino gutxiago) egin ezean, baloratuko da zenbateraino eraginen zaien Gutun Humanitarioan jasotako eskubideei: duintasunez bizitzeko, laguntza humanitarioa jasotzeko eta babesa eta segurtasuna izateko eskubidea. Era berean, baloratuko da mapa xehatu bat eranstea eta TOKIKO testuinguru sozioekonomiko geografiko eta sektoriala argi eta zehatz deskribatzea. Era berean, baloratuko da, hala badagokio, honako hauek aipatzea: proiektuaren beharra justifikatzen duten azterlanak edo analisiak, proiektuaren jatorria kokatzen lagunduko duten aurrekariak, inguruko antzeko esperientziak eta horiekin koordinatzeko mekanismoak, eta proiektuak tokiko, eskualdeko edo estatuko dinamikekin duen loturari buruzko informazioa, baldin eta dinamika horiek proiektuaren sektorearekin zerikusirik badute.

4.4. Finkatutako helburuak, aurreikusitako emaitzak, antzemandako arriskuak eta arintze-neurriak deskribatzea (4 puntu bitarte): Helburuak eta emaitzak argi definitzea baloratuko da, bai eta balorazio-adierazleak edo -parametroak (kualitatiboak edo kuantitatiboak) eta egiaztapen-iturriak aurkeztea ere, bai eta planteatutako ekintzaren arriskuen analisia egitea eta egoten ahal diren zailtasunen alternatibak planteatzea ere.

4.5. Jardueren deskribapena (10 puntu bitarte). Baloratuko da honako hauek zehaztea: jarduerak egiteko modua, horien iraupena (kronograma erantsi beharko da), jarduerak gauzatzeko arduradunak, parte hartuko duten pertsonak eta erakundeak, beharrezko materialak eta ekipamenduak, eta ea irisgarritasun-neurriak edo -alternatibak dituzten.

4.6. Aurrekontua (15 puntu bitarte) Baloratuko da behar duten partida guztien kalkulua azaltzea, planteatutako jarduerei dagokienez koherentea eta justifikatua izan dadin. Horretarako, Iruñeko Udalaren dirulaguntzaren erabilera zehaztuko da, zenbait emaileren finantzaketa jasoz gero. Azkenik, baloratuko da lankidetza deszentralizatuko beste erakunde batzuek proiektua babestea, batik bat nafarra bada.

4.7. Koherentzia, ekintzaren justifikazioaren, ezarritako helburuen eta proposatutako jardueren artean (4 puntu bitarte): Baloratuko da lotura koherentea egotea konpondu nahi den arazoaren deskribapenaren eta horretarako ezarritako helburu, emaitza eta jardueren artean.

4.8. Bideragarritasun teknikoa (4 puntu bitarte): Erabiliko diren bitarteko teknikoak garatzea baloratuko da, bai eta horiek proiektua garatzen den ingurunera egokitzen direla justifikatzea ere. Eraikuntzaren bat egitea dakarten proiektuen kasuan, obraren planoak eta erabili beharreko materialen azalpena behar dira, baita aurrekontuan jasotako prezioa ere. Ekoizpen- eta azpiegitura-proiektuen kasuan ezinbestekotzat jotzen da bideragarritasun-plana, oinarrizko mailan bada ere: espero diren diru-sarrerak eta gastuak azaltzea.

4.9. Proiektuaren osagarritasuna eskualdean egin diren LHLeko beste ekintza batzuekin (4 puntu bitarte): Baloratuko da proiektua eremu horretako LHLeko esku-hartze baten parte izatea, baldin eta hainbat eragilek (erakunde publikoek edota GGKEek) modu koordinatuan eta osagarrian parte hartzen badute bertan.

5. blokea. Zeharkako ardatzak (12 puntu bitarte)

5.1. Giza eskubideak (4 puntu bitarte): Baloratuko da proiektuak giza eskubideen defentsarako jarduera zehatzen bat aurreikustea, batez ere honako hauei aurre egiteko: a) pertsonen edo taldeen aurkako gertaerak, beren sinesmen politiko edo erlijiosoengatik, arrazagatik edo lurraldearen defentsagatik, edo b) emakumeen edo haurren eta nerabeen duintasun edo osotasun fisikoaren aurkako gertaerak. Gainera, baloratuko da proiektuak dirulaguntzaren xede den sektoreko politika edo zerbitzu publikoei erreferentzia egitea, eta nola aurreikusten duen politika edo zerbitzu horiek koordinatzeko edo haiekiko eragina izateko modu bat.

5.2. Genero-ikuspegia (4 puntu bitarte): Baloratuko da generoaren arabera -emakumeak eta gizonak- bereizitako arazoen eta premien azterketa egitea; bertan jasoko dira emakumeek eta gizonek proiektuarekin lotuta dituzten erantzukizunak, jarduerak eta parte hartzeko mugak, bai eta premiak asetzeko baliabideetarako sarbideari eta horien kontrolari buruzko informazioa ere. Halaber, baloratuko da emakumeen eta gizonen aukerak sustatzeko baliabide egokiak proposatzea (gaitasunak, langileak, aurrekontua, parte hartzeko estrategiak...).

5.3. Ingurumen-inpaktuak (4 puntu bitarte): Baloratuko da erreferentzia argi eta esplizitua egitea ingurumen-inpaktuari eta hura lantzeko moduei, honako hauekin loturik:

- Kapital naturala zaindu, mantendu eta babestea.

- Garraio- eta mugikortasun arloan jarduteko irizpideak (distantziak murriztea, motorizatu gabeko garraiobideak indartzea, mobilizazio kolektiboa, etab.).

- Jarduteko irizpideak baliabideei dagokienez: energia, ura, eraikuntzako materialak, azpiegitura- eta hondakin-sareen erabilera partekatua sustatzea.

6. blokea. Jarraipena eta ebaluazioa (4 puntu bitarte): Baloratuko da jarraipen- eta ebaluazio-prozesua nola gauzatuko den argi eta garbi azaltzea (eta matrize plan bat eranstea), bai eta onuradunen eta proiektuan inplikatutako entitate/kolektibo/erakundeen parte-hartzea ere. Azkenik, ebaluazio-prozesu bat aurreikustea baloratuko da, barnekoa, kanpokoa edo mistoa.

7. blokea. Iruñeko herritarrak sentsibilizatzea (2 puntu bitarte): Baloratuko da sentsibilizazio-ekintza bat edo gehiago planteatzea.

Proiektuek, dirulaguntza jasotzeko, gutxienez 70 puntu lortu beharko dituzte.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEKO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 105.000 €.

Gehienez ere 15.000 € emanen dira. Dirulaguntza jasotzeko, Laguntza Humanitarioko eta Larrialdietako proiektuak gutxienez 70 puntu lortu beharko ditu. Puntuazio hori gainditua, dirulaguntza eskatutako zenbatekoaren % 100ekoa izanen da, betiere deialdiaren oinarrietan gehienez baimendutakoa mugatzat hartuta eta kreditu eskuragarririk badago.

Aurreko apartatuan adierazitakoa ezertan galarazi gabe, aurrekontu-kontsignazioa 2026an agortzen bada eta bestelako funts erabilgarririk bada, horiek deialdi honetan erabiltzen ahalko dira, baina horrek ez du berez ekarriko beste deialdi bat egitea. Gehikuntza hori hainbat gastu-kapitulutatik etortzen ahal da (2., 4. eta 7. kapituluak).

Gehikuntza horren onuradun izanen dira eskaera deialdi honekin bat eta dirulaguntzak eskatzeko epean egin duten eskatzaileak, baldin eta kreditua agortzean laguntzarik jaso gabe gelditu badira. Eskaerak aurkeztu ahala aztertuko dira.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 90/23930/490000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: 15.000 €.

4. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	105.000 €	2. urtekoa ( )	€	4. urtekoa ( )	€
1. urtekoa ( )	€	3. urtekoa ( )	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

1. Bere izaera juridikoarekin eta legearekin bat eratutako pertsona juridikoa izatea, irabazi-asmorik gabekoa, eta xede izatea espresuki, garapenaren aldeko lankidetzari eta herrien arteko elkartasunari lotutako jarduerak egitea.
2. Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren (AECID) Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Erregistroan izena emanda izatea eskaerak aurkezteko mugaegunean; halaber, dokumentazioa eguneratuta izan beharko dute.
3. Presentzia Iruñean:

   Iruñean edukitzea egoitza edo ordezkaritza iraunkorra,

   edo

   Iruñeko herritarrekin jarduerak egitea: egiaztatu behar da azken bi urteetan entitate eskatzailearen gidaritzapean sustatutako 2 jarduera / proiektu (garrantzi publikokoak sentsibilizazioaren esparruan), gutxienez, egin direla Iruñean. Jarduerak oinarritu behar dira Hegoaldeko herrialdeen egoeraren inguruko elkartasunaren eta sentsibilizazioaren sustapenean. Ez da inolaz ere garrantzi publikoko jardueratzat hartuko komunikabideetan GGKEaren artikuluak zein elkarrizketak argitaratzea noiz edo noiz, ezta entitate eskatzailearen barne-jarduerak ere (prestakuntza, hedapena, etab.).
4. Entitatearen helburu sozialak beteko direla bermatuko duen egitura bat izatea.
5. Laguntza Humanitarioaren eta Larrialdien arloan lan-esperientzia erakustea; azken lau urteetan bi proiektu gutxienez kudeatu izana.
6. Deialdi honetan edo Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programaren besteren batean aurretik dirulaguntzarik jaso bada, egunean izan behar dituzte dirulaguntza horiek jasotzeak berekin dakartzan betebeharrak. Horrela izan ezean, espresuki Deialditik kanpo geratuko dira.

Berariaz honako hauek daude deialdi honetatik at:

- Irabazi-asmoa duten entitateak.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzetik: ☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla:

Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak: ☒ BAI ☐ EZ

a) Iruñeko Udalari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro. Era berean, jakinaraztea proiektua garatzen den bitartean entitate eskatzailearen nortasun juridikoan izandako aldaketak: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, etab.

b) Gardentasun-betebeharrari erantzunez, entitate onuradunek informazioa izanen dute honako hauei buruz: a) gobernu-, administrazio- eta zuzendaritza-organoen osaera; b) kargudunen zerrenda eta horien dedikazio-araubidea; c) kargu bakoitzeko entitateak eskuratutako diru-sari gordinak eta bestelako diru-sarrerak, kontzeptuka banakaturik, eta d) urteko kontuak. Informazio hori guztia Iruñeko Udalaren esku egon behar da, eta hark eskatzen ahal du.

c) Tokiko kideari edo kontraparteari jakinaraztea emandako dirulaguntza Iruñeko Udaletik datorrela.

d) GNLUPeko taldeari esku hartzeko eremuan programatutako bisiten berri ematea, eta bisita horien ondoren, horren berri emateko bilera bat hitzartzea.

e) Formulatzeko prozesuan adimen artifizialeko tresnak erabiltzen badira, berariaz aipatu behar da tresna horien erabilera.

f) Jasotako funtsak itzultzea, hala deialdi honen O) apartatuan nola Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako gainerako kasuetan.

g) Honako hau egitea, gutxienez, eta GNLUPi helaraztea proiektua amaitzean: albiste labur bat, zenbait argazkirekin batera, eta proiektuaren mugarri zehatzak jasotzen eta islatzen dituen bideo labur bat.

h) Iruñeko Udalari baimena eta laguntza ematea jardueren garapena hedatzeko, iritzi publikoaren sentsibilizazioa sustatze aldera, lankidetzari eta nazioarteko elkartasunari dagokienez.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate- oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluarekin bat: BAI ☐ EZ

Entitate onuradunak behartuta daude eskuratutako ondasunak dirulaguntzaren helburu espezifikoarekin lotzera, gutxieneko epe hauetan:

5 urte: Erregistro publiko batean inskribatzen ahal diren ondasunen kasuan (hala nola higiezinak edo ibilgailuak).

2 urte: Gainerako ondasunen kasuan (makineria, altzariak, ekipo informatikoak, etab.).

Erregistratu beharreko ondasunen kasuan, eskritura publikoan nahitaez erabili beharreko aldia eta jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa jaso behar dira. Bi datu horiek dagokion erregistro publikoan jaso beharko dira (adibidez, Jabetza Erregistroan).

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Aurreikusi ez diren inguruabarrek proiektuaren garapena aldatu edo hein handi batean eragozten badute, funtsezko aldaketak egiten ahalko dira proiektuan. Funtsezko aldaketatzat joko dira honako hauetan aldaketak eragiten dituztenak:

1) Helburuak eta emaitzak, edo horien adierazleak.
2) Xede-populazioa.
3) Tokiko kidea
4) Kokapena lurraldean.
5) Proiektuaren zenbatekoa, orotara.

Aldaketak Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari jakinarazi behar zaizkio eskaera arrazoitu baten bidez, hori justifikatzen duen kausa agertu bezain laster. Proiektua justifikatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eskabidea, nahitaez.

Eskabide hori deialdiarekin batera doan Proiektuak aldatzeko formularioaren arabera egin beharko da (10. eranskina). Aldaketa gauzatu ahal izateko, Iruñeko Udalak onetsi beharko du balorazioa egin ostean.

Proiektua gauzatzean gertatzen ahal diren gertakari txikiak edo aldaketa ez funtsezkoak dagozkien jarraipen-txostenetan adierazi beharko dira.

Eskaerak hasiera batean cooperacioninternacional@pamplona.es helbide elektronikora aurkeztu beharko dira, eta GNLUPeko taldeak baloratu ondoren, Udal Erregistroaren bidez aurkeztea egokia den baloratuko da, funtsezko aldaketa bada. Udal Erregistroaren bidez aurkezten denean, entregaren egiaztagiria posta elektronikoz bidali beharko da GNLUPera (cooperacioninternacional@pamplona.es).

G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak non aurkeztu:

Eskabideak telematikoki aurkeztu behar dira Iruñeko Udalaren erregistro elektronikoaren bidez, honako web-helbide honetan:

https://sedeelectronica.pamplona.es/?idioma=2

Aurkezpen telematikoak barne hartzen ditu deialdi honen G apartatuan aipatutako eranskinak.

2. Eskaerak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean noiz argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2026ko irailaren 30ean amaituko, betiere funts erabilgarririk izanez gero.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Laguntza hau eskatzeko, eskabide bat aurkeztu beharko da interesdunak berak sinatuta edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinatuta, deialdi honen I. eranskineko ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikuluak aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan badaude, haien ordez erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, bertan adierazita noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokie, nork eman zituen edo non dauden jasota, betiere ez badira bost urte baino gehiago pasatu agiriei dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duen agiria, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzekoa.

1. Entitatearen estatutuak
2. Entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzeko agiriak.
3. Entitate eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko agiriaren kopia.
4. Entitate eskatzailearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta haren akreditazioa (Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo antzekoa; ordezkari-izaeraren eta une horretan aitorturik duen ahalordearen akreditazioa).
5. Ziurtagiri eguneratua, egiaztatzeko Garapenaren aldeko Lankidetzako Agentzia Espainiarraren Garapenerako Gobernuz Kanpoko Elkarteen Erregistroan izena emana duela.

Tokiko kidearen edo kontrapartearen (herrialde hartzailea) nortasun juridikoa egiaztatzeko honako agiri hauek:

6. Estatutuak.
7. Legezko eraketa egiaztatzeko agiria, proiektuaren onuradun den herrialdeko legeekin bat.
8. Legezko helbidea, osorik.
9. Entitatearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta haren akreditazioa (nortasun agiri nazionala, pasaportea edo antzekoa).

Agiri horiek GNLUPi aurretik entregatu bazaizkio, ez da beharrezkoa aurkeztea, betiere aldaketarik egon ez bada eta bost urte baino gehiago igaro ez badira zein prozedimendutarako aurkeztu eta hori amaitu zenetik. Kasu horretan 6. eranskina bete beharko da.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Honako agiri hauek, eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela egiaztatzekoak:

☒ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☐ Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, aipatu betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio horrekin dituen tributu-betebeharrak, eta dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du egiaztapen hori.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izan–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen batean bildu beharko dira beste administrazio, entitate edo pertsona publiko edo pribatu batzuei helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, eta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak zehaztu beharko dira. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina).

☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria: eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatu behar du. 8. eranskineko ereduaren arabera. Laguntza Humanitarioko eta Larrialdietako proiektuak aurkezteko formularioa.

g) Jarduera garatzeko aurreikusitako gastu eta sarreren aurrekontu banakatua, 8.2 eranskinaren arabera. (Aurrekontua Excelen).

h) Garatu beharreko proiektua behar bezala ulertzeko beharrezkotzat jotzen bada, dokumentazio

grafikoa, teknikoa, finantzarioa eta beste mota batzuetakoa. Eranskinak izenburuarekin eta zenbakituta aurkeztuko dira, eta proiektuarekin lotuta egonen dira, ez entitatearekin.

i) Proiektuaren kokapen zehatzaren mapak (herrialdea, eskualde-departamentuaren mugapea, probintzia-mugapea eta udal-mugapea).

j) Proiektua diruz lagunduko balitz, hura gauzatzeko GGKE eskatzailearen eta tokiko kidearen lankidetzarako konpromisoa egiaztatzeko agiria (5. eranskina).

k) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera, banku-entitateari dagokionez aldaketarik izan bada (7. eranskina).

l) Entitatearen ahalmena, zeinak honako hauek biltzen baititu: helburuak eta lan-ildoak, egitura, zein lurraldetan jarduten duen, partaidetza sareetan eta esperientzia LHLeko proiektuetan eta Iruñean (4. eranskina).

Jarraian honako hau adierazten da: "Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak". Garapen jasangarrirako lankidetzaren eta elkartasun globalaren arloko dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen martxoaren 11ko 188/2025 Errege Dekretuan jasotako indarreko legeriaren arabera, eta, zehazki, haren 43.3 artikuluaren arabera, ez da beharrezkoa izanen jatorrizko dokumentazioa aurkeztea: eskaerarekin batera doan dokumentazio osagarriaren kopia soila aurkezten ahalko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.5 artikuluan xedatutakoa ezertan galarazi gabe.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-kreditua dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Instrukzio-organoak emanen du ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik eta espedientea kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Instrukzio organoak aurre-ebaluazio bat eginen du, eta hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non eskura daukan informazioaren arabera eskatzaileek bete beharreko betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatuko baita.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea:

Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da, eskaera erregistroan sartu eta egun horretatik aitzina.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio

Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ

- tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: ☒ BAI ☐ EZ

- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Iruñeko Udalaren webgunean (www.pamplona.es/eu)

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikuluak ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Gastu diruz lagungarrien zehaztapena:

Gastu diruz lagungarritzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek dira diruz lagungarriak:

Inbertsio-gastuak

A.I. Azpiegiturak konpontzea.

1. Lurrak edo ondasun higiezinak erostea.

2. Oinarrizko azpiegiturak berreraiki eta birgaitzekoak, baldin eta larrialdi humanitarioko egoera eragin duten zioengatik kaltetu badira.

3. Eraikuntza-azterlanak eta -proiektuak.

4. Eraikuntza-materialak eta horiek garraiatzea.

A.II. Larrialdietako laguntza humanitarioarekin lotutako ekipamenduak: Ekipamenduak eta beste aktibo produktibo batzuk erostea eta garraiatzea, xede den biztanleriari eragiten dioten oinarrizko beharrak asetzen laguntzeko badira: elikagaiak, oinarrizko osasun- edo higiene-materialak, etab.

1. Makineria

2. Ekipo medikoak eta antzekoak

3. Garraiobideak

4. Altzariak

5. Tresnak

6. Ekipo elektronikoak eta informatikoak, eta sistema eta programa informatikoak.

7. Ekoizpen zinematografikoak, fonografikoak, bideoak eta ikus-entzunezko serieak.

Gastu arruntak

B.I. Larrialdietako laguntza humanitarioarekin lotutako materialak eta hornidurak: Erostea eta garraiatzea.

B.II. Tokiko langileak: Dirulaguntzek, hala behar izanez gero eta baldin eta diruz lagundutako proiektuaren xedearekin haren beharra garbi justifikatzen bada, tokiko langileei dagozkien gastuak estaltzen ahalko dituzte.

B.III. Bidaiak, ostatu hartzeak eta dietak

C. Zeharkako kostuak: Zeharkako gastutzat hartuko dira entitate eskatzailearen ohiko funtzionamenduari dagozkionak eta esku-hartzearen jarraipen-gastuak, xede horretarako bidaiak barne (diruz lagundutako esku-hartzea gauzatzearekin lotutakoak, betiere zentzuz dagokion partean), oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera. Gastu horiek ezin izanen dute dirulaguntzaren % 7 gainditu. Gastu hori esku-hartzea gauzatzen ari den aldiari egotzi behar zaio, eta entitate onuradunaren Iruñeko eta Iruñerriko egoitzarekin zerikusia eduki. Iruñerrian dauden entitate edo erakundeetako egoitzei dagozkien gastuak egoztea baimentzen da, hiriarekin lotura soziodemografiko handia dutelako.

Iruñeko Udalaren dirulaguntzatik kanpoko ekarpen gisa onartuko dira lursail, areto, ekipamendu eta materialen zein onuradunen eta tokiko langileen eskulanaren balorizazioak, baldin eta zuzenean loturik badaude aurreikusitako jardueren gauzatzearekin. Egiaztatu behar dira esku-hartzearen onuradun diren tokiko kidearen / kontrapartearen edo ondasunak edo zerbitzuak ematen dituen entitatearen ziurtagiriaren bidez. Egiaztapen horretan ekarpena deskribatu eta kuantifikatu beharko da honako hauek adieraziz: unitate-kopurua, lan-orduak, unitate bakoitzaren prezioa (hala badagokio) eta guztizko balorizazioa. Balorizazioak tokiko merkatuko prezioetara egokitu beharko dira, eta, ekipamenduen edo ondasunen kasuan, antzinatasuna kontuan hartu beharko dute. Nolanahi ere, gainerako ekarpenak bezala kontrolatuko dira.

a) Iruñeko Udalaren dirulaguntzaren kontura egiten diren ekipamendu, material eta horniduren erosketa guztiak proiektuaren xede den herrialdean edo ingurukoetan egin beharko dira, eta bertako produktuekin. Eginbehar hori betetzea ezinezkoa bada, baimena eskatu beharko zaio, idazki arrazoitu baten bidez, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari.

b) Botiken erosketak salbuespenezko izaera izanen du, eta medikuen aginduei erantzun beharko die eta Osasunaren Mundu Erakundearen indarreko jarraibideekin bat etorri beharko dira.

c) Dirulaguntza lurrak edo ondasun higiezinak erosteko erabiltzea salbuespenezkoa izanen da, eta, betiere, haien legezko egoerari buruzko txostena egin eta benetan eros daitezkeela frogatzen duen beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da. Gainera, ondasun horien titulartasuna proiektua gauzatzen den herriko populazioa ordezkatzen duen komunitate-erakunderen bati egokituko zaio. Azken baldintza horrek eraikin berriak eraikitzeko proiektuetarako ere balio du.

Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen Ñ.2) apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak.

Honako hauek ez dira inoiz gastu diruz lagungarritzat joko: Atzerriratutako langileei egotzitako gastuak.

2. Gastu diruz lagungarriak egiteko epea:

Jarduerak gehienez ere hurrengo 6 hilabeteetan eginen dira, proiektua hasten den egunetik zenbatzen hasita.

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: % 40

Onuradunak azpikontratua egiten duela ulertuko da, hirugarrenekin ituna egiten badu, dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean egin dezaten. Dirulaguntzaren xede den jarduera berez egin ahal izateko, onuradunak egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da.

Ezin izanen da azpikontratatu dirulaguntzaren xede den jardueraren kostua handitu bai baina haren edukiari balio erantsirik ekarriko ez dion jarduerarik.

Onuradunek hirugarrenekin ituntzen duten jardueran errespetatu egin behar dira deialdian ezarritako mugak, dirulaguntzaren xede izaten ahal diren gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokienez, eta onuradunen ardura izanen da baldintza hori betetzea. Kontratistek, berriz, lagundu egin beharko dute, behar bezala egiaztatu ahal izan dadin muga horiek gainditzen ez direla.

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xede den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

☐ BAI ☒ EZ

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste

dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio Iruñeko Udalari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

N. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu:

Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☒ Ordainketa aurreratua: Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 100, ordainketa bakarrean eta aurretik ordaintzea.

☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, Iruñeko Udalak ofizioz kitatzen ahal izanen ditu, aldez aurretik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza horiek, osorik edo parte batean, dagozkion kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeak eratzea:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa: Dirulaguntza eman aurretik ez da eskatuko bermerako banku-abalik, irabazi-asmorik gabeko entitateendako dirulaguntzak izan eta Garapenaren aldeko Lankidetzarekin zerikusia duten jarduketak egin behar dituztelako; gainera, oinarri hauetan beraietan ezartzen dira dirulaguntzak kontrolatzeko eta justifikatzeko mekanismoak eta jasotako diru-kopuruak itzultzeko aukera.

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea:

Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

1. Dirulaguntza jaso duten GGKE onuradunek proiektuaren garapenaren txosten deskriptibo eta finantzario bakarra aurkeztu beharko dute. Txosten hori justifikazio txostenaren formularioarekin bat egin behar da, eta honako agiri hauek jasoko ditu:

1.1. "Txosten teknikoa", (9.1.. eranskina): bertan deskribatuko dira egindako jarduerak, erdietsi nahi ziren helburuak eta lortutako emaitzak, bai eta proiektuaren garapenean egindako aldaketak ere. Honako hau erantsiko zaio:

a) "Egiaztapen-iturriak": aurkezten ahal den beste edozein agiri –idatzizkoa zein grafikoa–, finantzatutako proiektuaren funtzionamendu edo gauzatze egokia egiaztatze aldera. Bertan Udalaren dirulaguntzaz baliatuta egin diren material iraunkor guztien kopia txertatu beharko da (argitalpenak, kartelak, liburuxkak, ikus-entzunezkoak, etab.), bai eta diruz lagundutako proiektua gauzatu dela egiaztatzen duen edozein agiri idatzizko zein grafiko ere (argazkiak, ebaluazioak, prentsa-dosierrak, etab.).

1.2. "Txosten ekonomikoa" (9.2. eranskina), jasotako dirulaguntzari dagokionez. Honako hau erantsiko zaio:

a) Tokian tokiko kideari edo kontraparteari dirulaguntzaren zenbatekoa bidali izanaren egiaztagiria, aplikatutako kanbio-tasa zehaztuta.

b) Ziurtagiri bat, tokiko kidearen edo kontrapartearen legezko ordezkariak sinatua, herrialde onuradunean dirulaguntza jaso dutela egiaztatzeko.

c) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreren zerrenda izenpetua eta zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, onartutako aurrekontu osoarena, hau da, hala jasotako dirulaguntzari nola proiektuaren baterako finantzaketari dagokienez (halakorik balitz).

d) Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu behar dira: fakturak, ordainagiriak, nominak, tributuak nahiz Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak. Diruz lagundutako jarduera gauzatzen den herrialdean egindako eragiketa edo negozio juridikoengatik egiten diren fakturak, ordainagiriak eta merkataritzako trafiko juridikoaren bestelako dokumentuak jaulki beharko dira herrialde horren tokiko legeriak ezartzen duen moduan.

Fakturak, ordainagiriak edo froga-balioa duten beste dokumentu batzuk onartuko dira gaztelaniaz edo hizkuntza koofizialetan aurkezten badira, baita ingelesez, frantsesez edo portugesez aurkezten badira ere. Dokumentazio hori aurrekoez bestelako hizkuntza batean badago, dagokion kortesiazko itzulpena edo gaztelaniazko azalpen-dokumentua aurkeztu beharko da.

Dokumentuak modu korrelatiboan ordenaturik aurkeztuko dira, aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

e) Faktura edo beste ordainketa-agiri bakoitza egindako ordainketa egiaztatzen duen agiriaz lagunduta aurkeztu beharko da (transferentziak, hartze-agiriak, etab.).

f) Dirulaguntzaren xede izan diren administrazio- eta kudeaketa-gastuak justifikatzeko dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dira. Gastu horiek ez dira % 7 baino gehiago izanen eta entitate eskatzailearen lokalen mantentze-gastuak, bulego materiala eta bestelako gastu orokorrak izanen dira. Entitateak Iruñean edo Iruñerrian duen egoitzari edo ordezkaritzari egotzitako gastuak

onartuko dira bakarrik.

g) Diruz lagundutako gastuak eta horien ordainagiriak aurkeztuko dira faktura edo bestelako agiri elektronikoen bidez, ahal bada. Erantzukizunpeko adierazpen bat erantsi beharko da, dokumentazioa jatorrizkoarekin bat datorrela bermatzeko (9.3. eranskina).

h) Hartzailearen egiaztagiria, Udalarenaz besteko dirulaguntzen zenbatekoa eta jatorria azalduta, baldin eta horiek proiektuaren xede den jarduerarik finantzatu badute, bai eta xede berarako jasotako beste edozein diru-sarrera edo baliabiderenak ere (III. eranskina).

i) Eskuratutako ondasunak edo birgaitutako / eraikitako higiezinak transferitzeko aktak.

2. Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak deitzen ahalko die finantzatutako GGKEei edo entitate onuradunei, horiek proiektuen garapenaren berri eman diezaioten, betiere, horrek deialdi honen E) apartatuan aurreikusitako onuradunen betebeharrik galarazi gabe.

3. Diruz lagundutako proiektuei edozein unetan egiten ahalko zaie kontrola eta jarraipena, eta haiek gauzatzeko ardura duten entitate arduradunek Iruñeko Udalak eskatzen dien edozein informazio edo dokumentazio eman beharko dute.

Kontrol tekniko eta finantzarioa GGKEei edo entitate onuradunei eginen zaie, eta honako hauek egiaztatzea izanen du helburu: funtsak behar bezala lortu direla, horiek aplikatzeko betebeharrak bete direla, dirulaguntza behar bezala justifikatu dela, eta aurkeztutako justifikazioaren arabera dirulaguntzarekin finantzatu diren eragiketak egiazkoak eta legezkoak direla.

4. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluarekin bat, dokumentuak prozeduran duen garrantziak hala eskatzen badu, edo kopiaren kalitateak eragindako zalantzak badaude, erkaketa bat eskatzen ahalko da, jatorrizko agiriak erakutsita. Jatorrizko agiriak erakutsi eta desadostasunen bat atzemanez gero, eta hura zuzentzeko errekerimendua egin eta gero desadostasunak bere horretan badirau, dirulaguntzaren bidezkoa den kopurua itzultzeko galdatuko da, kopuru horri gehituko zaizkiolarik dagozkion interesak, eta, behar izatera, legez ezar litezkeen zehapenak ere ezarriko dira.

5. Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 34.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, berariazko justifikazio-araubide bat ezarri da Nazio Batuetako nazioarteko erakundeendako. Edozein kasutan, horiei beti eskatuko zaie aurkez ditzatela finantzatutako proiektuari egindako transferentzien egiaztagiriak eta berariaz dagokien kontabilitate-kontrola, Estatu-parteek Nazio Batuen agentziei ezarritako funtzionamenduarekin bat. Aurrekoa gorabehera, Iruñeko Udalak erakunde horiei eskatzen ahal die beste edozein agiri entregatzeko, baldin eta egindako gastuaren justifikazio-kontuaren modalitateari badagokio eta Udalak garrantzitsutzat jotzen badu, betiere kasuan kasuko inguruabarrak aintzat hartuta, eta ezarritako baldintzak bete direla eta dirulaguntza ematean aurreikusitako helburuak lortu direla behar bezala justifikatzeko.

6. Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programak deialdiaren justifikazio-txostena eginen du. Txosten horretan jasoko eta baloratuko dira hala egindako jarduketak nola diruz lagundutako proiektu guztien justifikazio ekonomikoa. Txosten hori organo eskudunari bidaliko zaio, onets dezan.

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako justifikazio-edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orrien aurkezpena: Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistemaren bat

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga:

Justifikazio-epea hiru hilabetekoa izanen da, proiektua amaitu eta hortik aitzina.

Finantzatu beharreko proiektuak garatuko diren gizarte- eta geografia-testuinguruak kontuan hartuta, klausula honetan jasotako justifikazio-epeak egoki betetzea eragozten duten arrazoiak badaude, justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatzen ahalko da, baldin eta horrek hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez badie.

Epea luzatu ahal izateko, horretarako arrazoiak jakinarazi beharko zaizkio, idatziz eta dagokion txostena aurkezteko epea amaitu baino lehen, Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzako Udal Programari, eta horrek balorazio positiboa egin beharko du. Eskatu den epe-luzapena eragin duten inguruabarretara doituko da.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoietako batek ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

1. Edozein zio dela medio diruz lagundutako gastuak egiten ez badira, edo horietan aldaketak egiten badira Iruñeko Udalak bere organo kudeatzailearen bidez horretarako berariazko baimenik eman gabe, egin gabeko gastutzat hartuko dira.

2. Deialdi honen E) letran jasotako eginbeharra ez betetzea, zeinen arabera dirulaguntza zertarako jaso eta horretarako zehazki erabili behar baitira ondasunak.

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtso hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertzeko errekurtsoa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

Eskabide telematikoa egin aurretik GNLUPekin harremanetan jartzea gomendatzen da, funts erabilgarririk dagoen jakiteko.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

☒ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKOA.

☒ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO UDAL PROGRAMARI DOKUMENTAZIOA AURRETIK ENTREGATU IZANARI BURUZKOA.

V. ERANSKINA. PROIEKTUA

V.I. ERANSKINA. LHLeko PROIEKTUAK AURKEZTEKO FORMULARIOA

V.II. ERANSKINA. AURREKONTUA

V.III. ERANSKINA. KORRELAZIOA GHJen eta CRSen ARTEAN

VI. ERANSKINA. ESKATZAILEAREN ETA TOKIKO KIDEAREN ARTEKO LANKIDETZA-KONPROMISOA

VII. ERANSKINA. TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINTZEKO ESKABIDEA

VIII. ERANSKINA. AHALMEN INSTITUZIONALA

IX. ERANSKINA. JUSTIFIKAZIO-TXOSTENA:

IX.I. ERANSKINA TXOSTEN TEKNIKOA.

IX.II. ERANSKINA FINANTZA-TXOSTENA

IX.III. ERANSKINA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, AURKEZTUTAKO AGIRIEN EGIAZKOTASUNARI BURUZKOA.

X. ERANSKINA. PROIEKTUAN FUNTSEZKO ALDAKETAK EGITEKO ESKAERA.